



Joan Mari Torrealdairen hitzaldia

Protokoloa aurkezteko Donostian egindako ekitaldian esandakoak
(2016.12.17)

Hitzaldia:

Ohorea handia da zuei bi hitz zuzentzea.

Ez naiz nor zuen aurrean egoteko. Nire titulu bakarra da diktadura frankistaren azpian hasi eta 50 urtetik gora gaur arte, beti eta etengabe euskalgintzan jardutea, jardun izana.

Hortaz, nire eskarmentu pertsonaletik, eta batez ere gure belaunaldiaren lan kolektiboaren talaiatik mintzatuko natzaizue, ikasi dudantxo zuekin partekatzeko asmoz.

Nire eskarmentuko lezio nagusia esaldi labur honek bil dezake: *ezina ekinez egina*. Abiatzeko unean hainbat ekimenek hala ematen zuten, lortezinak zirela, baina, historia lekuko, ekinaren poderioz burutzera iritsi izan gara.

Euskal kulturaren historia argi honekintxe ikustea dut gogoko:

XVI. mendean inork gutxi uste zuen, antza, euskaraz idatzi zitekeenik. Gutenberg Galaxian sartzeko aski duin ez nonbait. Eta hona Etxepareren erantzuna: *Linguae Vasconum Primitiae*, euskarazko lehen liburua. Eta hona mezua: “*Bertzek uste zuten / ezin skriba ziteien / orain dute phorogatu / enganatu zirela*”.

Eta lehen euskal gramatikarekin gauza bertsua. XVIII. mendeko ilustratuen iritzian, euskara basati hau ezin bide zen arauetara moldatu. Larramendiren erantzuna gramatikaren izenburuan dago: “*El imposible vencido*”. Ahaleginaren handia azpimarratzeko edo, Virgilioren esaldia bere egiten du: “*Labor improbus omnia vincit*” (esan dezagun: lanak, gogor eginez gero, dena gainditzen du).

Lezio hau ere ikasi dut: lanak asko dezake, proiektuan sinetsi eta ilusioz jardunez gero.

Aitzindarien lan erraldoi horiek, lan kolektibo bihurtzen dira gure belaunaldian, XX. mendean erditik aurrera. Aurrerantzean talde-lana da nagusi eta ez pertsonaia jakin batzuen lan erraldoia. Gure belaunaldiak, gerraosteko lehen belaunaldiak, kolektiboki jokatu du, elkarlanean, talde-lanean, bai herrigintzan eta bai kulturgintzan edo euskalgintzan.

Koka gaitezen 60-70eko hamarraldietan: Franco diktadorea agintean, zentsura kultural eta errepresioa herrian, inolako laguntzarik ez administrazio publikoaren

aldetik, ez egitura edo azpiegitura kulturalik. Eta hortxe sortzen dira alfabetatzea, UEU, kantagintza berria, euskara batua, hainbat aldizkari eta argitaletxe.

Eta hortxe abiatzen da ikastolen mugimendua ere: agintari frankisten jarrera oztopatzailearen harrizarra gainean, irakasle eta ikasle euskaldunik gabe, ikasmaterialik gabe, azpiegitararik gabe. Ezina zirudien. Ondoren datoz kudeaketa eta arrakasta.

Hori, duela 50 urte.

Eta duela 25 urte, *Euskaldunon Egunkaria* abian jartzen da 1990ean.

Euskaltzale multzo batek erabaki zuen erakundeek bazter utzia zuten egunkariaren proiektua gauzatzea. Orduan ere giroa ez zen alde: goizegi zela, ez zegoela kazetaririk, ez eta irakurlerik, euskarak berak ez zuela tradizio periodistikorik, ez zegoela proiektua gauza zezakeen enpresarik.

Bi kasu enblematiko horietan, eta askoz gehiagotan, mugimendu kolektibo eta herrikoiak izan zuen protagonismoa; eta erantzukizuna hizkuntza komunitateak bere gain hartu zuen.

Hau da ikasi dudan hirugarren lezioa: herri ekimenak ikaragarri dezake, kudeaketa on batez lagundurik. Daukagun hoberentxoena herri ekimenari, lan eta elkarlan kolektiboari, hizkuntza komunitate aktibo eta konprometituari hein handi batean zor diogulakoan nago.

Herri ekimenaren formula ez da iraganekoa eta ez dago iraungia. Ezta gutxiago ere. Globalizazioaren haizeteak dena berdindu, homogeneizatu, eta uniformetu behar duen honetan, are beharrezkoagoa da hizkuntza komunitate antolatua eskua hartze zuzen eta proaktiboa.

Gutziz konbentziturik nago, aurrerantzean ere, hizkuntzaren estatusa edozein delarik eta legeak aldeko izanik ere, hizkuntza komunitateak eutsi beharko diola hizkuntza gutxituaren normalizazio soziolinguistikoari.

Hizkuntza hegemonikoei gure ahalegina ulertezina gertatzen zaie, mespretxugarria ez denean, (*patois*) edo anakronikoa. Edota susmagarria, *Egunkaria*-ren kasuan gertatu zen bezala. Bai baitirudi hizkuntzaren babesa eta ardura instituzioena dela soilik, eta ez komunitatearena. Modu erredukzionistan ulertzen dituzte hizkuntzen eskubideak.

Hizkuntza hegemonikotik ulertu gaituenen artean dago Victor Hugo. Hala idatzi zuen 1843an (Alpes et Pyrénées):

(Euskaldunarentzat) euskal hizkuntza aberria da, erlijioa esan dut ia-ia. Mendiko euskaldun bati hitz egiozu euskaraz; hitz honen aurretik ozta zinen gizon bat; hitz hori esanda, haren anaia zara”.

Bai, hizkuntzak identitate indar handia du, ukaezina: gurean, euskarak egiten gaitu euskaldun, euskara ikasten duena euskaldunberria da.

Identitatea, guztiz baliotsua izanik ere, ez da aski, ordea; hizkuntzak, bere balio praktikoa, komunikazio indarra erdietsi behar du, komunitatearen kultur tresna behar du izan, hiztun komunitatearen premia guztien zerbitzuko.

Hizkuntza, guretzako, ez baita ez filologoen perpausa ez olerkari erromantikoen bertsoa. Hizkuntza gertakari soziala da, hizkuntza-komunitatearen ikur eta lanabes. Batak bestea gabe, hizkuntzak komunitate gabe, hutsala du funtzio soziokulturala. Horra ikasi dudana laugarren lezioa.

Ezin egokiago dio Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokolo honek sarrerakoan: *“hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi”*. Hizkuntza ezin da bere herritik bereizi.

Gure bertsolari olerkari Xalbador handiak modu zoragarrian azaldu zuen hizkuntzaren eta herriaren arteko lotura hori:

*“Izaite bat ez daike hezur hutsez osa;
herria da gorputza, hizkuntza bihotza;
bertzetik berexten bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza”*.

Bertso eder honekin amai dezaket nirea.

Baina atrebentzia ez bada, proposamen bat luzatu nahi dut.

Gaurko elgarretaratze honek balio sinboliko handia du. Errealia ere izan dezala tamaina berekoa.

Ederra litzateke langintza berean dihardugunon berri modu sistematikoan izateko aukera bagenu hemendik aurrera, elkar ezagutuz gainera elkarlana sustatuko bagenu, norbera bere kultur esparruan isolatuta aritu partez.

Nazio-estatu eta hizkuntza hegemonikoetatik at, Europaren beste mapa linguistiko-kultural bat begien aurrean izan, hizkuntza eta kultura gutxituen ikusgarritasuna bideratu, ez dirudi ezinezko, ezta? Ahaleginak merezi du. Zergatik saiatu ez, gaur bertan Donostian hasita? Belaunaldi berriek eskertuko digute.

Eskerrik asko.

Donostia, 2016.12.17